## EUSKAL HERRIA CONTRA LA PRECARIEDAD

# LANGILEOK MARTXAN ESKUBIDEAK AKTIBATUZ!

Langileok martxan gara, EskuBIDEAK aktiBATUZ, Euskal Herrian prekarietatea garaitzeko. Iazko Maiatzaren Lehenean **LABetik genion ez genuela hazkunde ekonomikoko fase berri hau sendotzen eta egonkortzen lagunduko, elite ekonomiko eta politikoek, beren aberastasuna bermatzeko, gehiengo soziala miseriara kondenatzen dutelako.**

Orduan esandakoan berresten gara gaur. **Eskubide sozialen eta lan eskubideen likidazioaren kontrako borrokan jarraitzen dugu.** Ekinbide sindikala egokitu dugu prekarietatearen aroari aurre egiteko. Lan baldintza kaskarren kontra, pobreziaren eta bazterketaren kontra, krisi sozial larria da LABen lehentasuna eta gure borrokaren ardatza. **Ez dugu orain 10 urteko egoerara itzuli nahi. Egoera irauli nahi dugu eta horretarako arazoaren muinera jo dugu**: lan baldintza eta eskubideen prekarizazioan oinarritzen den lan mundua, herritarrak babesik gabe uzten dituen eredu soziala eta herriari erabakitzeko eskubidea lapurtu dion eredu politikoa.

**Emergentzia sozialeko egoerari erantzun, lan munduan gaur dugun errealitatea irauli eta alternatiben eraikuntzan aurrera egin ahal izateko antolatu da LAB.** Antolatu eta aktibatu egin gara, sektore ezberdinetako langileei, prekarioenak kasu, borroka beraren baitara bideak batzeko eskaintza sindikal zehatza eginez.

**Borrokak piztuz, mobilizazioak eta gatazkak hauspotuz krisi soziala eta prekarietatea lehen mailako arazo nazional bihurtu behar ditugu, agenda politiko-instituzionalaren erdian jarri.** Lan munduaren egoera ez da arazo laboral bat, inposatu zaigun eredu sozioekonomiko basatiaren isla, baizik. Pentsio sistema propio bat, Lan Harremanetako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua, kalitateko zerbitzu publikoak... burujabetza ariketak eskatzen dituzten afera politikoak dira guztiak. **Eta arazo politikoek irtenbide politikoak eskatzen dituztenez, borondaterik ez dagoen tokian behartu egin beharko dugu.**

Gero eta gehiago dira sindikalismoaren funtzio historikoen eraginetik kanpo geratzen ari diren langileak: lan mundutik at, negoziazio kolektiboaren babesik gabe, prestazioetara eta orohar zerbitzu publikoetara sarbidea ukatuta. **Errealitate horri aurre egiteko badugu eskaintza sindikal sendo bat, lan munduaren gaurko egoerari erantzuten diona.** Martxan gara, eta ez bakarrik salaketa eta erantzun dinamiketan, alternatiba zehatzen defentsan ere bai. Aberastasunaren eta lanaren banaketa dira gakoak: 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko lanastea, emakumeengana neurri hauek iristeko politika zehatzak; lan osasuna ziurtatzeko neurriak eta euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea. **Bost urrats hauek ematen badira langileen egoera goitik behera aldatuko da.**

Ekintza sindikal gaurkotuarekin eta aktibazioaren bidetik, lan zentruak patronalari eredu soziala eta laborala borrokatzeko eta boterea lehiatzeko eremu bilakatzea dugu helburu. Eta ez gaude bakarrik, emakumeekin, gazteekin, pentsiodunekin, eskuz esku dihardugu lan eta bizi baldintza duinen aldeko borrokan.

Sindikalismo independentistak aipatutako erronka horiei guztiei aurre egiteko gai izan behar du. **Aldaketa eragiteko baldintzak baditugu: badugu mugimendu sozial eta sindikal indartsu bat, Karta Sozialaren bueltan, Euskal Herrian alternatibak proposatu, saretu eta elikatzeko. Bagara antolatzeko eta borrokatzeko gaitasuna duen Herria.**

Baditugu aldaketa prozesua indartzeko, sendotzeko eta azkartzeko baldintzak. **Badugu aldaketa sozial eta laboralak behartzeko sindikalismo borrokalari bat.**

Baditugu alternatibak, bagara alternatiba.

Maiatzaren Lehenean ere kalean izango gara.
Gora langile borroka!
Gora LAB!

MAIATZAK 1

LAB

# EUSKAL HERRIA CONTRA LA PRECARIEDAD

# LANGILEOK MARTXAN ESKUBIDEAK AKTIBATUZ!

Los y las trabajadoras estamos en marcha, activando nuestros derechos por una Euskal Herria libre de precariedad. El pasado Primero de Mayo, **manifestábamos desde LAB que no participaríamos en la consolidación de esta nueva fase de crecimiento económico, ya que las élites económicas y políticas, de cara a garantizar beneficios, no hacen más que condenar a la mayoría social a la miseria.**

Nos reafirmamos en lo dicho entonces. **Continuamos en la lucha contra la liquidación de los derechos sociales y laborales.** Hemos adecuado nuestra acción sindical para hacer frente a la era de la precariedad. Contra las nefastas condiciones laborales, contra la pobreza y la exclusión, la grave crisis social es prioridad y eje en la lucha de LAB. **No pretendemos volver a la situación de hace 10 años. Queremos darle la vuelta a la situación y para ello hemos ido a la raíz el problema:** un mercado laboral centrado en la precarización de las condiciones y los derechos laborales, un modelo social que deja sin protección a la ciudadanía y un modelo político que ha robado el derecho a decidir al pueblo.

**LAB se ha organizado para responder a la situación de emergencia social, para dar la vuelta a la realidad que padecemos en el mercado laboral y para avanzar en la construcción de alternativas.** Nos hemos organizado y activado, con una propuesta sindical concreta que busca unir a trabajadores y trabajadoras de diferentes sectores, los y las más precarias entre otras, en una lucha común.

**Activando luchas, impulsando movilizaciones y conflictos, tenemos que lograr que la crisis social y la precariedad se conviertan en un problema nacional de primer orden, situarlos en el centro del debate político-institucional.** La situación del mercado laboral no es un problema laboral, sino el resultado de un modelo socioeconómico brutal que se nos ha impuesto. Un sistema de Pensiones propio, un Marco Vasco de Relaciones Laborales y de Protección Social, unos servicios públicos de calidad... todas ellas son cuestiones políticas que exigen un ejercicio de soberanía. **Y como los problemas políticos exigen soluciones políticas, nos va a tocar forzar allí donde no haya voluntad.**

Cada vez son más los y las trabajadores que se encuentran fuera del alcance de las funciones históricas del sindicalismo: fuera del mercado laboral, sin protección de la negoción colectiva, sin ningún tipo de prestación y con las puertas cerradas **a los servicios públicos en general. Tenemos una propuesta sindical fuerte para hacer frente a esta realidad, una propuesta que responde a la situación del actual mercado laboral.** Estamos en marcha, y no solo en dinámicas dirigidas a la denuncia o a contrarrestar los ataques, también en defensa de alternativas concretas. El reparto del trabajo y la riqueza es la clave: 1.200 euros de salario mínimo, jornada laboral de 35 horas semanales, políticas diseñadas para que estás medidas lleguen a la mujeres; medidas para garantizar la salud laboral y que se garantice el derecho a trabajar en euskara. **Cinco ejes, que si se respetan, cambiarán de arriba a abajo la realidad de los y las trabajadoras.**

Con una renovada acción sindical e impulsando la activación, nuestro objetivo pasa porque los centros de trabajo sean el escenario donde disputar el poder de la patronal y competir por el modelo social y laboral que queremos. Y no estamos solos, no estamos solas en la lucha por unas condiciones dignas de vida y trabajo, estamos trabajando codo con codo junto a mujeres, jóvenes, pensionistas...

El sindicalismo independentista tiene que ser capaz de hacer frente a los retos antes mencionados. **Tenemos condiciones para que el cambio sea real: un movimiento social y sindical fuerte que en torno a la Carta Social, propone, difunde y alimenta las alternativas en Euskal Herria. Somos un Pueblo con capacidad de organizarse y luchar.**

Existen condiciones para reforzar, fortalecer y acelerar el proceso de cambio. **Tenemos un sindicalismo luchador capacitado para forzar cambios sociales y laborales.**

Tenemos alternativas, somos alternativa.

El Primero de Mayo también saldremos a la calle.
Gora langile borroka!
Gora LAB!

MAIATZAK 1

LAB